

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

HABEren Prestakuntza Plana 2021

EBAZPENA, 2021eko maiatzaren 31koa, HABEren zuzendariarena, HABEren 2021eko Prestakuntza Plana onartzen duena.

Azaroaren 25eko 29/1983 Legeak, Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea sortu eta euskaltegiak araupetzekoak, HABEri agintzen dio helduen euskalduntzearen sustapena, eta, horretarako, hainbat eginkizun egozteaz gain, helduen euskalduntzean dihardutenen prestakuntzaz eta eguneratzeaz arduratzen du erakundea bere 12. artikuluan.

Era berean, HABEren arau organikoak onartzen dituen 34/1996 Dekretuan, otsailaren 13koan, azaroaren 25/1983 Legean aurreikusitako en ildotik, HABEren Erregistroan bildutako edo bilduko diren euskaltegi-tako irakasleak eguneratu eta etenik gabe hezteko egitasmoen lanketa egotzen dio erakundeari, Hizkuntzaren Didaktika Zerbitzuaren bitartez.

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2019ko abenduaren 5eko Aginduak helduen euskalduntzearen esparruan HABE onartzen dituen prestakuntza-planen ezaugarriak arautzeko eta prestakuntza-jardueren homologazio-betekizunak ezartzen ditu.

HABEren Prestakuntza Aginduaren 2. artikuluan zehaztutakoaren arabera, HABE helduen euskalduntzearen esparruan onartuko dituen prestakuntza-planen xedea da erakunde honek azaroaren 25eko 29/1983 Legeak eta lege hori garatzeko onartu diren xedapenetan ezarritakoaren babesean garatu behar duen Prestakuntza-arloko jardueraren lerro estrategikoak zehaztea, eta urtez urteko Prestakuntza-jarduerak antolatze-ko gidalerroak aurreikustea. Era berean, Aginduaren 6. artikuluan ezartzen da HABE, dagokion prestakuntza-planaren egituraren baitan, antolatutako prestakuntza-jarduerak urtero onartuko dituela HABEren zuzendariak Hizkuntzaren Didaktika zerbitzuaren proposamenez.

Lan-eginkizunak eraginkortasunez betetzeko, funtsezkoa da prestatzea edozein lan-arlotako teknikari eta adituentzat, eta, horregatik, helduen euskalduntzean diharduten langileek ere etenik gabe dute prestatu beharra. HABE erakunde-**an berebiziko garrantzia du prestakuntzak, eta, ondorioz, arreta berezia eskaini izan zaio helduen euskalduntzean diharduten profesionalen prestakuntzari HABEren sorreratik beretik, nabariak baitira hizkuntzen irakaskuntzan aldi-**an aldian gertatzen diren aldaketak: ikasleriaren profila, ingurune soziolinguistikoa, aurrerapen teknologikoak, ekarpen berriak arlo akademikoan, etab.****

Helduen euskalduntzean diharduten langileen prestakuntzaren baitan dago, neurri handi batean, euskararen ikaskuntza-irakaskuntza prozesuen berritzea, garatzea eta etenik gabe hobetzea.

Testuinguru honetan, euskalduntzearen indarguneen eta ahulezien analisiak ikuspegi dinamikoa izatea dakar berekin, eta, Prestakuntza Plana tresna bizia denez, prestakuntza-jarduerak gehitu, aldatu edo kendu daitezke behar berriak sumatzen badira.

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

Horren arabera, honako hau

EBAZTEN DUT

1. HABEren 2021eko Prestakuntza Plana onartzea, Ebazpen honetako eranskinean dauden zehaztapenen baitan.
2. Prestakuntza Plan hau 2021-2022 ikasturteak ekar ditzakeen irakasleen behar-premien arabera ikastaro berrietara geratzea zabalik.

Donostian, 2021eko maiatzaren 31n

HABEren zuzendaria
JOKIN AZKUE ARRASTOA

I.ERANSKINA

HABE-REN 2021EKO PRESTAKUNTZA-PLANA

Kodea	Izenburua	Irakaslea(k)	Iraupena	Noiz-non
1189	<i>H5P bidez, eduki didaktiko interaktiboak sortzeko aukerak erakustea</i>	Amaia Anabitarte	10 ordu	2021/01/18 eta 19 HAEren Donostiako egoitzako M1 aretoa
1190	<i>Audacity</i>	Aitor Amutxastegi	3 ordu	2021/02/23 HABEren Donostiako egoitzako G2 aretoa
	<i>Tailerra: Autoikaskuntza-sistema berri baten atarian</i>	Iñaki Murua eta Eskarne Lopetegi	6 ordu	2021/04/16 eta 23 HABEren Donostiako egoitzako G2 aretoa eta Jaurlaritzaren Andia kaleko Areto Nagusia
1191	<i>Asertividad y gestión emocional: Análisis y abordaje comunicacional ante situaciones complejas</i>	Cristina Merino	8 ordu	2021/04/26 eta 29 Donostia – Silken Amara Plaza hotela
1194	<i>La enseñanza y aprendizaje de la lengua desde una perspectiva competencial</i>	Montserrat Vilà	20 ordu	2021/06/15-17 eta 22 Online

Vitoria-Gasteiz kalea, 3

20018 DONOSTIA

Tel.: 943 022 600 Faxa: 943 022 601

www.habe.euskadi.eus

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

1196	<i>Evaluar para aprender. La innovación pendiente</i>	Lola Torres	20 ordu	2021/07/05, 07 eta 09 Online
1195	<i>Aplicación del CEFR Companion Volume para integrar la mediación en la enseñanza y evaluación del euskera a la población adulta</i>	Adolfo Sánchez-Cuadrado	20 ordu	2021/07/06-08 eta 16 Online
H16-21	<i>Teknologiak eta gaitasun digitalak hizkuntzen ikas-irakaskuntzan: elkarrekin eta elkarrengandik ikasteko gakoak</i>	Iñaki Murua Amaia Arroyo Lorea Fernández	15 ordu	2021/07/12-14 Donostia – Miramar jauregia edo online Zoom bidez
1192	<i>La evaluación acreditativa: diseño, elaboración, pilotaje, administración, corrección y análisis de los exámenes certficativos</i>	Fuensanta Puig	20 ordu	2021/07/15-16 eta 19-20 Online
1198	<i>¿Cómo gestionar emocionalmente el aula? La afectividad en el aula de lenguas</i>	María del Carmen Méndez Santos	20 ordu	2021/07/19-22 Bilbo – Euskararen Etxea
1202	<i>La afectividad en el aula de lenguas</i>	María del Carmen Méndez Santos	4 ordu	2021/07/23 Bilbo– Deustuko Unibertsitatea
1200	<i>Nola hitz egin jendaurrean</i>	Idoia Eizmendi	20 ordu	2021/09/02-03 eta 16 eta 17 Gasteiz– Konfekoop-en egoitza
1197	<i>Competencia digital docente: enseñar a aprender en entornos online</i>	Lola Torres	20 ordu	2021/09/06, 08 eta 10 Online
1199	<i>C2 gaikuntza</i>	Agurtzane Goñi	15 ordu	2021/09/06, 08 eta 13 Donostia– Andia kaleko Areto Nagusia
1201	<i>Ekintza komunikatibo bat gauzatzen irakasteko sekuentzia didaktikoak</i>	Ibon Manterola Leire Diaz de Gereñu Amaia Munarriz	10 ordu	2021/09/16 eta 30 Santurtziko Udal Euskaltegia
	<i>Atzerriko eta bigarren hizkuntzetako irakasleen funtsezko gaitasunak</i> <i>2021/2022 ikasturte akademikoaren hasiera-ekitaldian hitzaldi nagusia</i>	Carmen Pastor Villalba	1,5 ordu	2021/09/17 Gasteizko Europa Jauregian

Vitoria-Gasteiz kalea, 3

20018 DONOSTIA

Tel.: 943 022 600 Faxa: 943 022 601

www.habe.euskadi.eus